

2022/180 EBAZPENA, Baztango Udaleko Alkatetza-Lehendakartzarena, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion arkitekto-tekniko, gizarte-hezitzaile eta zerbitzu anitzetako enplegatu izateko lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onartzen duena, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

JOSEBA OTONDO BIKONDOAk, Baztango (Nafarroa) Udaleko alkate-udalburuak.

Legez ditudan eskumenei jarraikiz, 2022ko urriaren 31n, **EBAZPEN** hau eman dut:

- Alkatetzaren 2022ko maiatzaren 11ko 70/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko maiatzaren 19ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 97 zk.), Baztango Udalaren 2022. urteko Lan Eskaintza Publikoa onartu da, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

- 2022ko urriaren 27ko Udalaren Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez, toki entitate hau, Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak gauzatzeko neurriei buruzko uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako araudiarekin bat dator, modu partzialean, 8.9.b eta 9.1.b artikulua kenduta.

- Ondorioz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

RESOLUCIÓN 180/2022 de Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento de Baztan por la que se aprueba la convocatoria para la provisión, mediante concurso-oposición, de las vacantes de los puestos de Arquitecta/o técnica/o, Educador/a social, Empleado/o de servicios múltiples correspondientes al proceso extraordinario de estabilización y consolidación de empleo temporal, según lo dispuesto en el artículo 2.1 de la ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

JOSEBA OTONDO BIKONDOA, Alcalde del Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan, Navarra.

En virtud de las facultades que legalmente tengo conferidas, el 31 de octubre de 2022, dispongo la siguiente, RESOLUCION:

- Por Resolución de Alcaldía 70/2022, de fecha 11 de mayo de 2022, publicada en el Boletín Oficial de Navarra número 97, de 19 de mayo de 2022, se ha aprobado la Oferta de empleo público del año 2022 del Ayuntamiento de Baztan conforme a lo dispuesto en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

- Mediante Acuerdo de Pleno del Ayuntamiento de 27 de octubre de 2022, esta Entidad local se adhiere de forma de forma parcial, excluidos artículos 8.9.b y 9.1.b., a la regulación contenida en el título II de la Ley Foral 19/2022, de 1 de julio, de medidas para la realización de los procesos de estabilización derivados de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, en las Administraciones Públicas de Navarra.

- En su virtud, y en ejercicio de las competencias establecidas en el artículo 21.1 de la ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las bases de régimen local,

EBATZI DUT:


- 1.- Arkitekto-tekniko, gizarte-hezitzaile eta zerbitzu anitzetako enplegatu izateko lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onartzea.
- 2.- Oposizio-lehiaketaren deialdia arautzen duten oinarriak eta ezaugarri-koadroak onartzea. Ebazpen honetan sartuko dira.
- 3.- Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

RESUELVO:

1. Aprobar la Convocatoria para la provisión, mediante concurso-oposición, de las vacantes de los puestos de Arquitecta/o técnica/o, Educador/a social, y Empleada/o de servicios múltiples
2. Aprobar las bases y el/los cuadro/s de características por las que se rige la convocatoria de concurso-oposición, que se incorporan a esta Resolución.
3. Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial de Navarra

Baztan, 2022ko urriaren 31 / Baztan, 31 de octubre de 2022

Joseba Otondo Bikondoa
Baztango alkatea / Alcalde de Baztan

**HELEGITE EDO ERREKURTSOEN ARAUBIDEA:**

Ebazpen honen kontra honako helegite hauetako bat jartzen ahal da aukeran:

- a.- BERRAZTERTZEKO helegitea, egintza egin duen organuan berean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, HILABETE BATEko epean.
- b.- ADMINISTRAZIOAREKIKO helegitea, Administrazioarekiko Auzietarako Auzitegian/Aretoan, dagokion bezala, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, BI HILABETEko epean, edo
- c.- GORA JOTZEKO helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aitzinean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, HILABETE BATEko epean.

RÉGIMEN DE RECURSOS:

Contra esta Resolución cabe interponer optativamente uno de los siguientes recursos:

- a.- Recurso de REPOSICIÓN ante el mismo órgano autor del acto en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución.
- b.- Recurso CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante el Juzgado/Sala, según proceda, de lo Contencioso Administrativo en el plazo de DOS MESES desde el día siguiente al de notificación de esta resolución; o bien,
- c.- Recurso de ALZADA ante el Tribunal Administrativo de Navarra dentro del MES siguiente a la fecha de notificación de esta resolución.